



# ALDERDIA GARA



## Maribel Vaquero, Kongresuko bozeramaile

Aitor Esteban Euskadi Buru Batzarreko lehendakari izendatu dute eta Maribel Vaquerok hartu du bozeramailetza Espainiako Kongresuan / 2-3

EAJ-PNV

## Denboraldia, puri-purian

Eskubaloian eta futbolean partida erabakigarriak ari dira jokatzen asteotan / 10-13

Olatz Manterola Anza  
Urnietako Montefrio  
nekazal-turismoko  
arduradunari  
elkarrizketa / 5

Palestinarekin  
elkartasuna, larunbat  
honetan, Andoaingo  
Juanita Alkain  
plazatzooan / 14



*Elkar mugituz  
egingo dugu*

**Bat egin EUSKARALDIAREKIN!**

**ANDOAINEN MARTXAN GAUDE!**

**HAMAIIKAKOAREN  
AURKEZPENA**

**Apirilak 4,  
ostirala**

**Plaza Morea**

**18:00**



ANDOAINGO UDALA



andoainDARRA  
euskaraz





## TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



## Ibilgailu pribatuen sailkapena bi udalerrietan

Turismoen batez besteko antzintasuna 12,0 urtekoa da Beterri-Buruntzan



### Erredakzioa ANDOAIN

Datuok 2023an DGT-k emandakoak dira eta, ziurrenik, kopuruak aldatuz joan dira. Bereziki, elektrifikatuen kasuan.

### Andoain

Turismoen batez besteko antzintasuna 12,0 urtekoa da. Ibilgailu guztien % 0.3 elektrifikatuta daude.

- Ziklomotorrak: 159.
- Motozikletak: 1.067.
- Turismoak: 6.999.
- Furgonetak: 620.
- Kamioiak: 533.

### Urnieta

Turismoen batez besteko antzintasuna 12,1 urtekoa da. Ibilgailu guztien % 0.4 elektrifikatuta daude.

- Ziklomotorrak: 103.
- Motozikletak: 673.
- Turismoak: 3.223.
- Furgonetak: 670.
- Kamioiak: 387.

## IRITZIA

IMANOL GOENAGA EGIBAR ANDOAINGO EAJ-PNV-KO BOZERAMAILEA ETA GBB-KO KIDEA

# Pilotalekutik, aro berri bat

Mundua emozioek mugitzen omen dute. Ez da kasualitatea PNVk Batzar Nagusia egiteko Donostiako Atano III pilotalekua aukeratu izana. Bertan ospatu zen 1967an Uztapide eta Xalbador bertsolarien arteko final mitikoa; 1970eko Pilotako Munduko txapelketan, bere buruari su eman eta Franco diktadorearen gainera bota zen Joseba Elozegi; edota 1976an frankismoaren ondoren baimendutako lehen hitzaldi masiboa eman zuen Xabier Arzalluzek. Ziurrenik ez da Bastero, Kursaal edota BEC bezain "moderno", baina, "vintage" izanda ere, Euskaldunon iruditeria emozionalean balio berezia dauka Atanak.

Asteburu honetan pilotalekuan gertatutakoa gure aberriaren etorkizuneko bide orria finkatzeko ariketa kolektiboa izan da. Egonezinaren eta atxikimendu faltaren garaiotan, PNVk eraberritzeko erabakia hartu du, ordezkatzen dugun komunitatean dugun konfiantzatik abiatuta. Herri hau gidatzen jarraitu nahi dugu, militantzian oinarrituta.

Estebanek hiru balio eskatu zizkien alderdikideei: batasuna, eredugarritasuna eta apaltasuna. Balio horiek ez dira sinbolo hutsak, etorkizuneko ibilbidearen



EAJ-PNVren Kongresuaren amaierako argazkia. EAJ-PNV

mapa marraztuko duten oinarri sendoak baizik. Tradizioari eta nortasunari errotuta, baina begirada ireki batekin. Laburrean, "ez da abertzaleagoa gehien oihukatzen duena, gehien egiten duena baizik", Arzalluzen hitzak gogorarazi zituen Estebanek.

PNVn bide luze eta emankorra egina du dagoeneko –gaur egungo autogobernua eta erakundetze sistema, kontzertu ekonomikoa, edota egitura sozioekonomiko sendoa–, baina erronka berriak ate joka dira. Trump edo Txinak

baldintzatutako mundu aldakorrean, gure tokia aldarrikatu behar dugu: Europako nazioa gara, eta gure etorkizunaren jabe izan nahi dugu.

Aurrera egiteko, barne batasuna, gizartearen konfiantza eta ekintza politiko eraginkorra uztartu beharko ditugu. Eta, nola ez, herri honek hain maite dituen pilota partidetan bezalaxe, tantom tanto, etorkizuna eraikitzen jarraituko dugu. Frontoira neguko jertse lodiarekin joan ginenok, ez genuen asmatu. Emozioen partida izan baitzen

jokatutakoa, eta berotasuna nabarmena.

Andoainen, Euskadiko beste txoko askotan bezala, badakigu komunitatea eraikiz soilik egingo diogula aurre etorkizuneko erronkei. Horregatik, izan da IX. Batzar Nagusia mugarri: bai alderdiko militanteontzat, baina, baita gure balioak partekatzen dituzten andoaindar guztientzat ere. Izan ere, Batzokiko ateak zabalik ditugu. Zurekin, auzokoekin eta herritarrekin aro berri honi ekiteko. Gogoratu, partidak 22ra arte jokatu behar direla.

# Vaquero, EAJ-PNVren bozeramaile, Kongresuan

Aitor Esteban Euskadi Buru Batzarreko lehendakari izendatu dute, berriki, Donostiako Atanon ospatu duen Kongresuan. Izendapenak izan ditu ondorioak, esaterako, Espainiako Kongresuko bozeramailetzan: Maribel Vaquerok hartu du bere lekukoa

**Jon Ander Ubeda** URNIETA

Igandean Aitor Estebanek Euskadi Buru Batzarreko lehendakari izendatu zuten, ofizialki. Astelehen arratsaldean, alderdiak ohar bidez iragarri zuen Kongresuko bozeramailetzan Estebanek utzitako hutsunea Maribel Vaquerok beteko zuela. Modu horretan, Urnietako politikari eskarmentudunak garrantzi handiko postua hartuko du. Lehen ere Kongresuan ari zen lanean, baina oraingoan foko guztiak Vaquerok bereganatuko ditu. "Ohore bat da", adierazi zuen bideo bidez zabaldutako adierazpenean. Kargua arduraz hartu eta beteko duela erantsi zuen, segidan.

**Urnietako EAJ-PNV, pozarren**

Uri Buru Batzarrek oharra argitaratu eman du poza erakutsiz: "Urnietako EAJ-PNVren Uri Buru Batzarretik gure harrotasun eta errekonozimendu sakona adierazi nahi dugu garrantzi



Maribel Vaquerok iragarpena egin zuen uneko argazkia. EAJ-PNV

politiko handiko postuetan bi emakume urnietar izendatu berri dituztelako. Miren Martiarena Barkaiztegi, Euskadi Buru Batzarreko burukide gisa, eta Maribel Vaquero Montero, Madrilgo Behe Ganberan Euskal taldearen bozeramaile titular gisa, mugarri historikoa dira gure herriarentzat eta Euskadirentzat.

Biziki eskertu nahi diegu egin duten lan nekaezinagatik eta Urnietaren izena gorenera eramateagatik. Lorpenean ospatzen dugu eta ibilbide politiko berrian bienganako babesa eta miresmena berretsi nahi dugu. Eskerririk asko, Miren eta Maribel, gure herriarentzat eta Euskadirentzat harro egoteko modukoak zaretelako".



Miren Martiarena. EAJ-PNV

## Miren Martiarena, EBBko burukide

Urnietarra EAJ-PNVko Euskadi Buru Batzarreko (EBB) burukide izendatu berri dute

**Erredakzioa** ANDOAIN

Miren Martiarena Barkaiztegi Gubernu Irekiaren eta Gubernu Onaren zuzendari kargua bete du orain arte Eusko Jaurilaritzako Gubernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailean, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzen. 2011-2016 urteetan, Gizarte Ekintza eta Berdintasun zinegotzia izan zen Urnietako Udalean. "Burukide aukeratu izanak harrotasunez bete ditu Urnietako jeltzaleak, urnietar bat datozen lau urteetan alderdia gidatuko duen taldeko kide izatea ospatzen baitute", adierazi dute Urnietako jeltzaleek ohar bidez.



Aritz Alkain. PSE-EE

## Aritz Alkain, Gipuzkoako PSE-EEko zuzendaritza

Gipuzkoako sozialistek zuzendaritza berri dute, aurreko asteburuan egidako X. Kongresuan

**Erredakzioa** ANDOAIN

Alderdi sozialistak Gipuzkoako kongresua egin berri du eta bertan hainbat aldaketa iragarri ditu. Besteak beste, Andoaingo PSE-EEko zinegotzi den Aritz Alkain zuzendaritza-taldeko kide berria izango da. Agintaldi berriari ekingo diote Jose Ignacio Asensioren zuzendaritzapean. "Gezurten eta desinformazioaren bidez deabrutzen gaituzte. Horregatik da hain garrantzitsua Alderdi Sozialistak oraina gidatzen jarraitzea, hemen eta orain", adierazi zuen Asensiok, idazkari orokorraren postua berretsi berri. 150 ordekarik hartu zuten parte Kongresuan.

## Gertuko alderdikideen mezuak

Maribel Vaquerorekin harreman estua dute Mikel Pagola Urnietako alkate ohiak eta Joseba Egibar Gipuzko Buru Batzarreko lehendakari ohiak. Aiurri astekaria harremanetan jarri da biekin, urnietarraren soslaia hobeto osatu asmoz. Honatx, jasotako lekukotzak:

**Joseba Egibar**

"Sentimendu abertzalea, herriaren ezagutza eta sentsibilitate soziala dira Maribel Vaqueroren profil politikoaren ezaugarri nagusiak. Euskadiko erakunde nagusietan ibiltzeko eta ondoren Diputatuen Kongresuan izandako esperientziak Madrilgo Euskal

Taldearen bozeramaile bikaina izateko beharrezko esperientzia eman diote. Euskadiren, gure eskubideen eta gure interesen defentsan duen irmotasunak, enpatiarekin batera, bere hautua bermatzen du. Ziur nago Madrilgo zeregin handia izango duela".

**Mikel Pagola**

"Hiru urte zituenetik ezagutzen dut Maribel eta urte hauetan guztietan harremana mantendu eta sendotzeko aukera izan dut. Kargu publiko gisa erakusten duen konpromisoaz gain, zerbaitetan nabarmentzen bada bere lanarekiko duen etika eta kultura sendoagatik izango litzateke.

Horrez gain, bere familia, bere lagunak, bere herria, bere aberria maitatzen dituen pertsona da. Lagunen arteko espazioak gogoko dituen, liburuak irakurtzea gustoko duena, gauzak ospatu behar direnean ospatzeko tarteak bere buruari eskaintzen dakiena.

Maila pertsonaletik harago, azken egun hauetan Urnietako Udalean bere ibilbide politikoa hasi zuten bi emakume jasotako aitortza balioan jarri nahiko nuke. Maribel Vaquerok eta Miren Martiarenak bi erronka zail dituzte aurrean. Prest zaudete. Gaitasuna duzue. Espazio publikoetan eta sukalde lanetan aritzea tokatuko zaizue. Zortetik onena opa dizuet, gu guztion mesedetan arituko zarete ez baitut inolako zalantzarik. Gora zuek".



andoaINDARRA  
euskaraz





Euskal Herriko askotariko txokotatik gerturatu zen jendea. AIURRI

## "Buruntzaldea kuirra lumakadaka"

Jendetsua izan zen Buruntzaldeko transmaribolloen sareak joan den larunbatean antolaturiko eguna

### Erredakzioa ANDOAIN

Udaberrian murgildu berritan, egun osoko egitaraua antola zuen joan den larunbatean Buruntzaldeko transmaribolloen sareak, Andoaingo gaztetxean, "Buruntzaldea kuirra lumakadaka" lemapean. Hutsune bati erantzun nahi diote, kolektiboari tokia egin eskualdean, erreferenteak sortzeko, elkar ezagutzeko zein babesteko. Bada, taldeari ikusgarritasuna emateko aukera ederra izan zen egitaraua, baita askotariko txokotako sexu-genero disidenteak sartzeko aitzakia ere.

Goizean goizetik hasita, zer hausnartua izan zen Andoainen larunbatean, esperientzia kuirren bilduma osatu baitzuten mahainguruan. Nor bere tesuingurutik, bere bizipenetik abiatuta, Buruntzaldeko kideez gain, Coimbrako (Portugal) zein Baionako lagunak igo ziren

## ELKARREN ARTEKO KONPLIZIATEA ESTUTZEKO NAHIZ INDARRAK BILTZEKO PARADA IZAN ZEN

oholtza gainera, toki bakoitzeko errealitateak gertutik eza-gutzeko asmoz.

Eguerdian berriz, bazkalaurretik, herriko kaleak hartu zituzten, marianitada musikatuarekin eta, behin tripa bapo beteta, jolasari bide eman zioten arratsaldean, MerendOkarekin. Hala, ilundu bezala, geroz eta jende gehiago gerturatu zen Andoaingo gaztetxera, Euskal Herriko makina bat txokotatik, gaueko egitarauari jarraipena emateko asmoz: Tukanaren *performance*-a, Alu Zikinak, MJPQ, Dj Azkura... Ordu txikietan ere identitate disidenteek hartu zuten taula, egunarekin estuki loturiko aldarrikapenak ospakizun-giroan ere entzun zitezten.

Aliantzak sendotzeko aukera eman zuen hitzorduak, elkarren arteko konplizitatea estutzeko nahiz indarrak biltzeko parada izan zen, Euskal Herrian, pixkanaka-pixkanaka, egonkortzen ari diren aldarrikapenak sendotzeko bidean. Eskualdean ere utzi du arrastorik egunak, eta abiapuntu ona izan zen larunbata gertuko transmaribolloentzat, Buruntzaldea lumakadaz betetzen jarraitzeko.



Elkartasuna, Andoainen. AIURRI

## Palestinarekin elkartasuna, Andoainen

Andoain Palestina taldeak honako mezua zabaldu du: "Palestinar herriak pairatzen duen genozidioaren aurrean andoaindarrok ez gara isilik geratuko". Eta, hain zuzen, apirilaren 5ean, larunbat goizez, elkartasun eguna antolatu dute Juanita Alkain plazan:


10:00-14:00 Postuak eta tailerrak.  
12:30 Mosaikoa, elkarretaratzea.



Jardunek antolatu du Aberri Eguna.

## Gernikako Aberri Egunera joateko busa antolatu dute

Jardunek Aberri Eguna ospatuko du Gernikan, datorren apirilaren 20an: "Bertara joateko autobusa antolatu dugu, 09:00tan Donostiatik eta, segidan, Urnietako Matxo ondoko autobus geltokitik igaroko da. Itzulera goizeko 4:00tan izango da. Tike-tak Urnietako Frontoi tabernan daude salgai, 15 eurotan. Internet bidez, goo.su/3F5cDRQ gunean klik eginez.



AIURRI

## Eklipsea, Andoaindik ikusgai

Eguzki eklipse partziala ikusteko aukera izan zen Andoainen, aurreko larunbatean. Olivier Georg andoaindarrak fenomeno ikusgarriaz gozatzeko tresna egokia zeraman eta berak ez ezik, ingurukoek ere eklipsea ikusi ahal izan zuten. Partziala izanik, zati bat baino ez zen ezkutatu. Gurean, adituek esana, Ilargiak Eguzkiaren diametroaren %22 baino ez zuen estali.



AIURRI



AIURRI

## Izena emateko aukera

Maiatzaren 15ean Euskaraldiaren edizio berria ospatuko da eta prestaketa-lanak hasita daude. Izena emateko aukera dago telematikoki baina, hala ere, Andoaingo Batzordeak laguntza zerbitzua eskaini du. Ostiral arratsaldean aukera berria izango da Plaza Morean, 18:00tan hasita. Egun horretan bertan aurkeztuko da Andoaingo Hamaikakoa.



# “Oso gustuko du jendeak Montefrioren lasaitasuna”

**OLATZ MANTEROLA ANZA** MONTEFRIO, URNIETA

Ateak irekita ditu Montefrio nekazal-turismoak, landa-eremuan ostatu hartu nahi duen ororentzat. Baserri-giroan murgiltzeko aukera ematen die bisitariei

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

Adarra magalean, Donostiara begira da Montefrio nekazal-turismoa. Berdegunez inguratuta, landa-eremuaz gozatzeko makina bat aukera eskaintzen du, familia giroan. Etxearen gidari da Olatz Manterola Anza eta nekazal-turismoaren ateak ireki dizkio Aiurriri, beren egunerokoa gertutik ezagutzeko asmoz.

**Udaberrri sasoian, eguraldi atsegineko egunak biderkatzearekin batera, zereginak ugaritzen al dira Montefrio nekazal-turismoan?**

Oraingoz, gehiegi ez, baina sargardo-denboraldian sartuta gaudenez, urtero etortzen zaizkigun bezeroak ere baditugu. Apirila amaiera aldean etortzen dira, normalean. Egia da, Booking orrialdean oraindik ez dudala erreserba egiteko aukera ireki, Nekaturren eta gure web orrialdearen bidez zein mugimendu dagoen ikusi ahal izateko. Baina laster zabalduko dut.

**Urteko zein beste garaitan izan ohi duzue lan-kopuru handiena?**

Nabarmenena beti izan ohi da udara. Garai batean, uztailea amaiera aldean zein abuztuaren lehen asteetan etortzen zen jendea. Orain, horrez gain, ekainean zein irailean ere egoten dira erreserbak. Aste Santuan ere etortzen dira bisitariak, baita neguko sasoian ere, egiten duen elurraren arabera.

**Nongoa da, nagusiki, zuenera gerturaten den jendea?**

Euskal Herri kanpokoak izaten dira, gehienbat: Herrialde Katalanak, Valentzia... Booking zerbitzuarekin asko zabaltzen da aukera eta nazioartetik ere etorri izan zaizkigu bidaiariak, Holandatik, adibidez.

**Zein turismo mota egiteko asmoz etorri ohi dira bisitariak?**

Mendi-ibilaldiren bat edo beste egiten dute, baina, nagusiki, hirira joaten dira. Donostiaren



Olatz Manterola Anza, Montefrioko kidea. AIURRI

ondoan dago kokatuta Urnieta eta garraio-zerbitzu publikoak nahiko gertu ditugu.

**Egun argiz, hiria bisitatu, ondoren, landa-eremuan atsedean hartzeko?**

Egia da oso gustuko duela jendeak Montefrioren lasaitasuna, etxeko giroa baita nagusi.

**Gomendio berezirik ematen al diezue?**

Asmoak nahiko zehaztuta etorri ohi dira gehienak. Dena dela, Goierri aldean oso toki politak daudela azaltzen diegu bezeroei, geroz eta masifikatuagoa baita-go Donostia.

**Zuen animaliekin egoteko aukera ere badute bisitariak, baita baratzeko-lanetan jarduteko ere.**

Horrelako gauzak probatzeko gogoz etortzen dira batzuk, batez ere umeak baldin badauzkate eta, bai, noski, zabalik dago aukera.

**Interesa dutenek nola egin zuenean erreserba egiteko?**

Online aukera dago, baita telefono-zenbakira (679 66 79 34) hots eginda edo mezua idatzita. Helbide elektronikoa ere badugu: agroturismontefrio@hotmail.com.



AIURRI

## Idiazabal, boulebarizaziorantz

Joan den ostegunean egindako osoko bilkuran hartutako zenbait erabakiren ondorioz, aldatetak izango dira herriaren mugikortasunean. Besteak beste, aho batez erabaki zen Idiazabal kalearen boulebarizazioaren bigarren faseko proiektua: Arantzubitik Zaldundegira doan tarteari eragingo dio horrek.



IBERSYS

## Lehen sorospenak, Zilegi Eskolan

Saio berria iango da udaberriko Zilegi Eskolan, apirilaren 8an: "Lehen sorospenak". Saioak doakoak dira, hala ere, komeni da izena ematea: zilegieskola@ae.eus helbide elektronikora idatzita edo 663 043 413 edo 662 338 747 (Urnieta AEK) telefono-zenbakietara hots eginda.



Urnieta  
udala





Unai Elorriaga. SUSA



Miren Amuriza. SUSA



Joxean Agirre. ELKAR

# 111 Akademia Saria erabakitzeke bozketa abiatu da

Horrenbestez, saria hautatzeko bigarren bozketa txanda zabalik da, apirilaren 27ra arte. 2024ko Akademiaren Saria maiatzaren azken egunetan emango dute ezagutzera eta sari banaketa ekitaldia datorren ekainaren 5ean izango da

## 111 AKADEMIA KOMUNITATEA

MANUEL LARRAMENDI BAZKUNA

Euskal Literaturazaleen 111 Akademiak amaitutzat eman du 2024. urteko Akademiaren Saria ebazteko hiru bozketa txandetako lehenengoa. Akademia osatzen duten 218 akademiakideek martxoaren 28ra arte aukera izan dute 2024. urtean argitara emandako literatura lanen uzta osoan "gogokoen" gertatu zaienaren aldeko botoa emateko.

Esan bezala, lehenengo bozketa txanda horretan, akademiakideek 2024. urtean argitara emandako literatura obra guztien gaineko botoa eman ahal izan dute, alegia, 2024. urte osoan

euskaraz argitara emandako literatura lanak proposatu ahal izan dituzte sarirako. Emandako boto guztien artean, baina, ez da obrarik gailendu botoen % 40tik gorakoarekin, eta, beraz, botorik gehien jaso duten bost obrak hautatu dira bigarren bozketa txandara igarotzeko.

Botorik gehien jaso duten egileak ondokoak dira: Miren Amuriza, Joxean Agirre, Unai Elorriaga Uxue Alberdi eta Beñat Sarasola.

Horrenbestez, saria hautatzeko bigarren bozketa txanda zabalik da, apirilaren 27ra arte. Bigarren bozketa txanda horretan akademiakideek goiko bost obra horietakoren baten alde egin beharko dute, edota boto

zuria eman. Lanen batek lortuko balu emandako botoen arteko % 40a gainditzea, automatikoki hari emango litzaioke saria. Bestela, hirugarren bozketa txanda zabalduko litzateke gehien bozkaturiko bi obrek.

111 Akademiak aurreikusten duenaren arabera, 2024ko Akademiaren Saria maiatzaren azken egunetan emango luke ezagutzera –hiru bozketa txandak egingo balira– eta irabazleak saria eskuratzeko ekitaldia ekainaren 5ean izan liteke, ostegunarekin.

### Etorkizuna, airean

Aurten ohi baino geroago jarri du 111 Akademiak bozketa bidea martxan eta, horrenbestez, ohi

baino hilabete geroago amaituko du. Horren arrazoia azaldu beharra ezinbesteko jotzen du Akademiak: hogeita zortzi urteko ibilbidearen ostean zailtasun handiak dauzka une honetan 111 Akademiak aurrera jotzeko. Joan den urrian, 18 urtez eragile izan den Amaia Goikoetxea teknikariak utzi egin zituen Akademiako bere lan eta ardurak lan- baldintza duin eta txukunagoko lanpostua hartzeko eta, geroztik, zailtasun handiak dauzka Akademiak bere ordeztaritu dena kontratatzeko. Hori gutxi balitz, finantzaketa arazo berriak dauzka bere lan-egitaraua gauzatu eta burutu ahal izateko.

Jon Unanue akademiaburuak adierazi duenez, "28 urteren ostean ez dugu lortu euskal literaturari eta irakurzaletasunari bideraturiko egitasmo honek erakundeen aldetik behar besteko babesik jasotzea. Azken urteetan 111 Akademiaren lan-egitaraua gauzatzeko zortzi dirulaguntza ezberdin kudeatu behar izan ditugu, zortzi, eta horrek lan izugarria eman dio teknikariari, beste eginkizun batzuk guztiz eragotziz. Oraintxe bertan, azken hiru urteetan jasotako bi dirulaguntzekin 2025ean arazoak eduki ditzakegula esan digute... Ezinezkoa da horrela lan egitea eta ezinezkoa 28 urtez eutsi diogun ahalegin handi honi jarraia ematea".

Beraz, aurten, uda aurretik, Manuel Larramendi Kultur Baz-

## Boto gehien jaso duten bost obrak

Botorik gehien jaso duten obrak eta egileak ondokoak dira:

- PLEIBAK - Miren Amuriza.
- GIZON BARREGARRIAK - Joxean Agirre.
- FRANCESCO PASQUALEREN BOSGARREN ARIMA - Unai Elorriaga.
- HETERO - Uxue Alberdi.
- COCA-COLA BAT ZUREKIN - Beñat Sarasola.

kunak erabaki egin beharko du 111 Akademiarekin aurrera egingo duen ala ez, behin 2024. urteko saria banatuta, amaitutzat emango duen bere ekimena. Bien bitartean, baina, akademiakideei ahalegin berezia eskatu zaie 2024. urteko saria erabakitzeke bidean ohi bezala parte har dezaten.

## MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAK ANTOLATZEN DU 111 AKADEMIA SARIA



# Urnietako eragile-taldea, martxa hartuta

Euskaraldiaren bilera irekia izan zen joan den asteko asteazkenean, Lekaio kultur etxean, egitasmoa antolatzeaz arduratu den eragile-taldea deituta. Ekimenaren nondik norakoak xehetu zituzten bertan



Koldo Tapija, Lekaio Kultur Etxean, Euskaraldiaren aurkezpen-ekitaldian. AIURRI

## Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Maiatzaren 15etik 25era izango da aurreko Euskaraldiaren laugarren edizioa. Bada, hamaika egunek irauten duten bitartean, baita lehenago ere, ekimenarekin loturiko makina bat hitzordu izango da Urnietan. Horien guztien berri emateko, bilera irekia izan zen, joan den asteko asteazkenean, Lekaio kultur etxean. Zenbait xehetasun eman zituen Manttala elkartearen kide den Koldo Tapiak, antolatzaileen ordezkari gisa. Hasteko eta behin, herritarrek testuinguruan ipintze aldera, atzera begirako ariketa egin zuen Tapiak, Franco hil ondorengo hamarkadatik gaurdaino, hizkuntzaren errealitatearen bilakaera zein izan den ikusteko: urteen joanarekin, euskal hiztunen kopurua biderkatzeaz gain, ezagutza maila igotzea lortu dela aipatu zuen, alfabetatuta daudela belaunaldi

gazteak, unibertsitateak lehenago ez zituen aukerak dituela orain... "Horrekin guztiarekin espero zen euskararen erabilera gora egitea eta, hain justu, azken denboraldian, beste zerbait erakutsi digute datuek", azaldu zuen Manttaleko kideak, izan ere, haren hitzetan, "beheranzko joera" hartuta dago euskararen erabilera, eta "gainbehera horren zantzuak" hasi dira antzematen, baita hizkuntzaren arnagune diren tokietan ere: "Handia da kanpoko hizkuntzek ezartzen duten presioa eta familia bizitzak berak ere ia ezin dio horri aurre egin".

Horrekin batera, gogora ekarri zuen Tapiak 70ko eta 80ko hamarkaden bitartean euskal jendarteak hizkuntza sustatzeko erakutsi zuen aktibazioa eta motibazioa, izan alfabetatze-kanpainetan, izan Ikastolekin... "Gaur egun, ordea, euskararen

egoera normalizat du jendeak: irratia eta telebista ditugu, umeak eskolara bidaltzen ditugu, unibertsitatea dago... Konformatu egin gara, desmotibatu, desantolatu". Euskara elkarteetan ere ipini zuen begirada: "Lehen pilo bat zeuden eta, orain, zailtasun handiekin ari dira, belaunaldi berriak ez direlako dinamika horretan sartzen ari. Inpas handia dugu horretan".

## Euskaraldiaren aurrekariak

2015, 2016 eta 2017. Tapiak bileran azaldu bezala, hiru urte horiek pisua omen daukate euskara biziberritzeko ahaleginean, baita gerora etorri zen Euskaraldiaren sorreran ere.

Lutxo Egia idazleak 40 egunez egindako erronka esanguratsua izan zen Tapiarentzat, hizkuntzak bizi duen errealitatea agerian uzteko: "Kalean, euskara hutsean hitz egitea erabaki zuen,

gaztelaniaz jakingo ez balu bezala. Jende askok eta askok atzerritartzat hartu zuten". Hala, esperientzia hori oinarri hartuta, antzeko ekimenak egin ziren, besteak beste, Egia auzoan, Añorga auzoan edo Arrigorriagan. Lasarte-Orian lur hartuta, "Euskararen maratonia" egiten da lau urtetik behin, eta, bertan, 40 orduz aritzen dira parte-hartzaileak euskararen bueltan. 2016an, ekimenari erronka potoloagoa jartzea otu zituzten lasartearekin eta, 40 ordu izan beharrean, 40 egunera luzatu zuten egitasmoa, "Baietz 40 egun euskaraz" lemapean. Tapiak bileran adierazi zuenaren arabera, 2000 pertsonak eman zuten izena eta hor sortu ziren *belarriprest* eta *ahobizi* txapak, Euskaraldia baino lehenago: "Aurrekari horiek zeudela, Euskaraldia sortu zuen Taupa (Topagunea zena) elkarteak, Eusko Jaurlaritzarekin batera".

Euskaraldiaren sorreran, oso helburu "xumeak" eta "praktikoak" jarri zirela zehaztu zuen Tapiak bileran: alde batetik, euskararen erabilera erdigunean kokatzea; beste alde batetik, hizkuntza-ohiturak auzitan jartzea; eta, azkenik, euskara agendan eta iritziz publikoan lehen lerroan jartzea. "2018an kokatu behar gara. Gizarte mugimenduak eta administrazioak elkarrekin emandako lehen urrats nagusietako bat da Euskaraldia". Lehen edizioaren parte-hartzeak "arrakasta handia" izan zuela du gogoan Urnietako euskaltzaleak. 2020an, pandemiaren erdierdian izan zen bigarren edizioa. Hirugarrena, berriz, 2022an eta hemen da laugarrena: maiatzaren 15etik 25era, euskararen aldeko ariketa erraldoia antolatu da. Euskaraldiak botatzen duen erronka urteko egun guztietara luzatu behar dela uste du Tapiak: "Lehen hitza euskaraz egin beharra daukagu, eta eutsi. Bestela, gure nortasunaren ezaugarri nagusienetarikoa denari eusteko gai ez baldin bagara, gainerako istorioek niretzat ez dute balio".

## Euskaraldia, Urnietan

Otsailaren lehen hamabostaldian bildu ziren lehenengoz honako eragile hauek: Manttala, Batzokia, EH Bildu, Egape Ikastola, Magale-Salestarrak ikastetxea, Bagara talde feminista, Urnietako Udala, Xoxokako auzo el-

## Urnietako Hamaikakoa

- Nekane Kortaxarena Goenaga.
- Unai Legarreta Astiasaran.
- Amagoia Mujika Tolaretxipi.
- Imanol Ansa Urruzola.
- Antton Jauregi Aranburu.
- Guangli Wen Chen.
- Enara Donavera Garcia.
- Unai Gaztelumendi Arandia.
- Xabier Altuna Jauregi.
- Naroa Urbizu Kortajarena.
- Jon Unanue Lopez.

## Izena emateko mahaia

**Apirilak 4, ostirala**  
Etxeberri plaza.

18:00-20:00.

**Apirilak 5, larunbata**  
Kiroldegi ingurua.

11:00-13:00.

**Apirilak 6, igandea**  
Zaldundegi inguruan.  
11:00-13:00.

kartea, Aballarri guraso-elkartea eta Zanpatuz mendi-elkartea. Tapiak bileran jakinarazi moduan, eragileen taldeak hartuko du hitzordua dinamizatzearen ardura, "ez baita inor aurkeztu Urnietan. Are gehiago, hori gertatu zaigun herri bakararra gara".

Gauzak horrela, pasa berri den asteazkenean aurkeztu dute Euskaraldiaren hamaikako ofiziala: euskararekin lotura estua duten herriko alor ezberdinetako pertsonak osatzen dute taldea. Dena dela, hori ez da izango sortuko duten hamaikako bakararra, beste hamar ezagutzeko aukera ere izango baitute urnietarrek maiatzaren 18an, herriko zenbait sektore oinarri hartuta: kultura, ikastetxeak, AEK, lehen sektorea...

## Izena emateko mahaia

Zabalik da, jada, Euskaraldian izena emateko epea. Online egiteko aukera dago, baina aurrez aurreko hitzorduak ere ipini ditu talde-eragileak herritarren eskura.



Maite Iruretagoiena eta Nemesio Zapirain. AIURRI

# Merezitako atsedena

Bertxin Pentsiodunen Elkartearen zuzendaritza aldaketa izan da aurten. Nemesio Zatarainek eta Maite Iruretagoienak talde berriari utzi diote elkartearen erantzukizuna, hamabost urtetan jardun ostean



Jesus Alvarez, Peio Jauregi, Nemesio Zatarain, Flor Lopez, Pedro Mateos, Juli Correas eta Maite Iruretagoiena, Bertxingo elkartearen zuzendaritzakide ohiak eta berriak, Basteron, urtarrilaren 31ko batzararen ostean. AIURRI

## Xabier Lasa ANDOAIN

Bertxin Pentsiodunen eta Jubilatuen Elkartearen kideek Basteron urtarrilaren 31n egin zuten urteko batzarrean gauzatu zen zuzendaritzaren aldaketa. Maite Iruretagoienak eta Nemesio Zatarainek gidatu dute batik bat Bertxin elkartearen azken hamabost urtetan. Erreleboa eskatzen ari ziren, eta elkartearen zenbait kideek gogotsu hartu diote lekukoa, urtea hastearrekin batera.

Elkartearen bazkideek Oianumen martxoaren 1ean egin zuten bazkarian, merezitako aitortza egin zioten bikoteari, hainbat urtetan eduki duten eskuzabaltasunagatik. Iruretagoienak adierazi duenez, "pozik hartu genuen keinu hura, beti baita eskertzekoa zure ondoan dituzunak egiten dizuten aitortza, bihotzez egingo delako".

Biek ez daukate aparteko gauzarik egin izanaren sentsaziorik, baina onartzen dute, norberekeria nagusitzen den gizartearen, "harridura" eragin dezakeela "dedikazio handia eta musutruk egitea eskatzen dituen postuan hainbeste urtetan segi izanak", Iruretagoienak erantsi duenez.

Maite "Nekea sentitu, sentitu dugu, azken urtetan gehienbat. Baina, hortxe segi izan badugu, hasieratik hartu genuen konpromisoari eutsi nahi izan diogulako izan da. Lehenago utzi genezakeen erantzukizuna, baina ez zen aurkezten inor lekukoa hartzeko gogoz. Elkartearen ekimen ugari ditu eskuartearen, urtean barrena, eta horiek ezin ziren nolana izan".

Erronkari heldu dion talde berria hartu du aipagai Nemesio Zatarainek "Gogoz eta ideia berriekin heldu dira, eta seguru gauzak txukun egingo dituztela. Laguntza behar badute, gertu edukiko gaituzte edozertarako".

Izatez ere, elkartearen urteko ekimenetan parte hartzen segiko du bikoteak bazkide gisa, eta horietako batean, "Ibili Andoain" ekimenean, adineko jendea elkartzea eta elkarrekin jarduerak fisiko osasungarri bat egitea helburu dituen ekimenean alegia, laguntzaile gisa ariko da, orain arte egin duen bezala.

**"HASIERATIK HARTU GENUEN KONPROMISOARI EUTSI NAHI IZAN DIOGU"**

Hori bai, lasaitu ederra hartuko dute honetaz aurrera, Zatarainek aitortu duen eran. "Ardura handia izan dugu gainean, burokrazia eta kudeaketa konfiantzarako egunero egoitzan aritu behar horrekin eta elkartearen ekimen guztiak ondo atera zitezkeen beti kezketan ibili behar horrekin libratuko gara batez ere, hemendik aurrera".

## Bertxin: ekimen beteko elkarte

Biek onartzen dute Bertxin Pentsiodun eta Jubilatuen elkartearen agian ez dela nahiko luketen bezain ezaguna herrian, adineko gazteagoak diren artean batik bat. "Jende askok uste ez badu ere, Andoaineko bazkide gehien dituen elkarte da, 900 bat bai, eta kuota txiki baten truk makina bat ekimen eskaintzen dizkie bazkideei urtariletik hasita urtean barrena", gogorarazi nahi izan du Iruretagoienak.

Ekimenean zerrendatzen hasi dira biak ere, "memoria ikastaroak eta gimnasiako taldeak, ibilaldia Leitazarnera, egun bateko hiru txango herritik kanpo, bospasei opor-bidai, inauterietan txistorra jateak, bingoa (asteazkeneko), Sanjuanetan txapelketak (toka, musa, tutea eta igel-toka), hamaiketakoak, bazkariak, dantzaldia hamabostero...".

## Taberna irekia eta dantzaldia

"Anbrosia Olabide eraikinean, taberna irekia eta dantzaldia, noizko?" da Bertxingo elkartearen hainbat kideek azken aldian egin duten galdera; urtarrilaren 31ko batzarrean ere errepikatu zuten eskakizuna. Zatarainek hitzetan, "zuzendaritza berriari dagokio gai honetaz mintzatzea, baina dakiguna da sukaldean erreformak egin direla, eta udaletik agindu zaigunez, bada norbait taberna kudeatzeko konpromisoa hartu duena. Kudeaketarako lehiaketan jarritako baldintzetan taberna eta sukaldia (eguneko menua...) eramateaz gain hamabostean behin dantzaldia antolatzeko ardura hartzea dago. Hortaz, denbora kontua izan beharko luke dena berriro martxan jartzea".

**"ZUZENDARITZA-KIDE BERRIEK LAGUNTZA BEHAR BADUTE, GERTU EDUKIKO GAITUZTE"**





Jon Espin eta Mikel Oartzabalek La Salle Berrozpen fabrikatu duten tolarearen gaineko azalpenak eman zituzten. AIURRI



Eneko Mosquero ikasleak, ibilgailu elektrikoa eraman zuen Azokara. AIURRI

# Eskaintza zabala, aukeran

La Salle Berrozpe, ESCIVI eta Leizaran Institutuak hamasei eskaintza edo ikasketa ziklo desberdin ikasteko aukera eskaintzen dituzte, eta horien gaineko xehetasunak eman zituzten aurreko larunbatean Plaza Morean antolatu zuten Azokan

## Xabier Lasa ANDOAIN

Lanbide Heziketan murgilduta dauden hiru ikastetxeek antolatu zuten Azoka, Udalarekin elkarlanean. Aurreneko aldia da halako izaera eta helburuak dituen Azoka antolatzen dela, eta ikusita eduki zuen arrakasta, ziurtzat ematen da jarraipena izango duela hurrengo urtetan.

Hain zuzen, Lanbide Heziketako hiru ikastetxetako irakasle eta ikasleek hartu zuten azalpenak emateko eginkizuna, informazio eske bertaratu ziren herritarren aurrean.

Leizaran Institutuko Karmele Peña eta Marisa Najera irakasleek beren mahaitara hurbildu ziren herritarri adierazi zieten, eskolak bi ziklo eskaintzen ditu; giza eta gizarte zientziekin lotura dute biek, eta pertsonaren eta gizartearen premietara bideratuta daude. Peñak mendekotasun

egoeran dauden pertsonan zaintza lantzen duen erdi mailako ikasketaren ezaugarriak xehatu zituen, eta Najerak beste hainbeste egin zuen gizarteratzea izeneko goi mailako zikloarekin. ESCIVI Zine eta Bideo Eskolako Pelαιο Eizagirre irakasleak bisitariei gogoratu zenez, gaur egun, sei ziklo eskaintzen ditu eskolak, bost goi mailakoak (errealizazioa, ekoizpena, argiztapena, 3D animazioa eta soinua), eta erdi mailako bat (DJ bideoa). Gaineratu zenez, badago aukera zikloak elkarren segidan egiteko. Modu batera zein bestera, berretsi zuen ESCIVIk ikasleari hainbat baliabide eskura jartzen dizkiola ikus-entzunezkoaren munduan formakuntza osatutarekin atara dadin eta lan munduan trebezia murgil dadin.

La Salle Berrozpe ikastetxeak jarri zituen erakus-mahaietan,

besteak beste, Amaia Zapirain fabrikazio mekanikoko diseinuko irakaslearekin egin zuten topo bisitariek. Zapirainek 3D programa erabiliz nola diseinatzeko dituzten proiektuak azaldu zitien. Eneko Mosquero 2. mailako mantenu elektronikoko ikasleak, Ibilgailu elektriko bat eraman zuen Azokara, eta bere diseinuaren gaineko azalpenak eman zituen. Mikel Oartzabal eta Jon Espin elektromekanikako 2. mailako ikasleek, berriz, sagardotegietako tolare baten fabrikazio prozesua izan zuten hizpide.

**IRAKASLEEK  
ETA IKASLEEK  
INFORMAZIOA  
ETA ESPERIENTZIAK  
PARTEKATU ZITUZTEN**



Amaia Zapirain, La Salle Berrozpeko irakaslea. AIURRI



Pelαιο Eizagirre, ESCIViko irakaslea. Aiurriren web orrian elkarrizketak ikusgai. AIURRI



Marisa Nagera eta Karmele Peña, Leizarango irakasleak. AIURRI



Jaime Nieto, Ubitarteko kantxan. **AJURRI**

# "Borrokan ari gara, baina emaitzak ez dira iristen"

**JAIME NIETO** LEIZARAN ERNIO ESKUBALDIA TALDEKO JOKALARIA

Euskal Ligan debuta egin orduko lesio larria izan zuen eta, hala ere, gertutik jarraitzen ari da taldearen martxa. Ibilbide osoa egin du Andoaingo eskubaloi taldean

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Allurraldeko harmailetan egin dugu elkarrizketa, eta, kantxan, argazki-sorta.

**Lehenengo eta behin, Jaime. Zer moduz zaude?**

Ondo, itzultzeko gogoz. Aurreko ligamentu gurutzatua eta meniskoa hautsi nuen denboraldiaren hasieran. Minez hasi

nuen denboraldia eta gogoan dut lesioa izan aurretik gorputzak abixu bat edo beste eman zidala. Zarautzen aurkako partidaren, 4. minutuan, esprinta jo nuen norabidea aldatzeko eta une horretantxe hankaren kontrola gutzit galdu nuen.

**Nolakoak izan ziren hurrengo minutuak?**

Kontaktu handiko kirol jarduerak da gurea eta ohituta gaude minarekin jokatzera. Argi sentitu nuen zerbait banuela baina partida garrantzi handikoa zen. Aldaketa gutxi genituen, gainera. Minutu batzuk igarota berriro ateratzen nintzen kantxara eta segundu gutxi egin nituen jokoan. Belaunak ez zuen erantzuten.

**Eta ondorengo minutuetan, zer?**

Poliklinikara joan eta probak egin zizkidaten. Lesio larria konfirmatu besterik ez zen egin. **2024, bestalde, gogoan hartzeko urtea izan da Leizaran Ernio Inmobiliaria taldearentzat. Oso une bereziak bizi izan zenituzten. Nola gogoratzen duzu aurreko denboraldia?**

Xabier Amiano entrenatzailea iritsi zenean Gipuzkoako Lurraldeko 2. mailan ari ginen eta hasierako helburua 1. mailara igotzea izan zen. Hori lortuta, igoera fasea jokatzeko aritu ginen baina ez genuen lortu Euskal Ligara igotzea. Denbora-tarte batean Valentzia aldean ibili nintzen eta, itzulitakoan, Euskal Ligara igotzeko erronka jarri genion gure buruari. Oso talde sendoa genuen, postu guztiak ondo beteta genituen. Aspalditik ezagutzen genuen elkar eta lor genezakeela sinetsita geunden. Lan handiaren ondorioz iritsi zen igoera. Zeren eta lurralde mailako lehen taldean oso maila orekatua dago. Edozeinek irabaz zaitzake eta, horregatik, oso erregularra izan behar duzu. Oso ondo ekin genion denboraldiari, sentsazio onekin eta puntuak pilatuz. Helburua gertu ikusten genuen. Bestalde, lesio-rik ia ez genuen izan eta hori oso lagungarria da helburu handiei ekiteko. Igoera lortu arteko azken txanpa ikaragarria izan zen. Sekulako bultzada sentitu genuen harmailatik. Herrian ere babes zabala jaso genuen eta kanpoko partidatan ere zaltetuen laguntza izan genuen. Kanpoko partida batzuetan etxean bezala sentitzen ginen.

**Eta historia egin zenuten!**

Bai, gizonetzkoen mailan lehen aldian izan baita Euskal Ligan aritzeko aukera lortu dugula.

**Denboraldia hasi zenuen, eta debuta egin ahal izan zenuen. Euskal Ligan jokatu duzula esan dezakezu. Izan ere, denboraldi honetan ez duzu jokatu.**

Ez. Niretzat aspaldi amaitu zen denboraldia. Zarautzen aurkako partida izan zen azkena. Liga kanpotik ikusi dut eta esperientzia polita izan da. Maila eta joko oso ezberdina da Euskal Ligan.

**Jauzi handia delako diozu?**

Bai, fisikoa da erabat eta aurkari gehienek partidaren egoera aztertzeko maisutasun handia erakusten dute. Urte luzez ditutako taldeak dira.

Hasteko eta behin, igotzea oso zaila da. Denboraldi perfektua egin behar duzu helburu hori lortzeko. Baina, behin igoera lortuta, mailari eustea ere oso zaila da. Talde gehienetan esperientzia handiko jokalariek dituzte eta harrobi lan bikaina egiten ari dira.

Gure kasuan, urte bikaina izan genuen eta, aurtan, bajak direla, lesioak direla, mailari eustea oso zaila da.

**Zer da zuretzat Leizaran eskubaloi?**

Oxigenoaren parekoa da niretzat. Entrenatzaileak eta jokalariek txikitatik ari gara honetan eta niretzat kirol jarduerak bat baino askoz gehiago da.

**Zuen arteko giroa oso ona dela antzematen da.**

Familiaren pareko ditut nire taldekideak. Bizitzako une asko partekatu ditut jokalariekin eta hori kantxan eta kantxatik kanpo antzematen da.

**Kanpotik ari zara taldearen martxa ikusten. Prestaketa saioetan eta partidatan. Nola baloratuko zenuke taldea egiten ari dena?**

Erresilientzia. Hitz horrekin definituko nuke taldea. Egoera zailak egokitze gaitasuna erakusten ari direlako. Borrokan ari gara, baina emaitzak ez dira iristen. Eta, halere, taldea lanean ari da, Olatz Olmedo entrenatzailea buru dela. Bajak, entrenatzaile aldaketa, lesioak... Aldaketa asko egon dira eta, gainera, zorte txarra izaten ari gara. Denboraldi honetan lehian ari dena ez da Euskal Ligara igotzea lortu zuena.

Aurreko denboraldia eta aurtengo txanponaren bi aldeekin parekatuko nituzke.

**Aurtengo esperientzia baliagarria izango da geroan ere.**

Hori litzateke helburua: berriro ere Lurralde mailako lehen mailan lehiakorak izatea.

**Itzulera noizko duzu aurreikusita?**

Kasu bakoitza ezberdina da, baina nire lesioarekin urtebete eman beharko nuke jokatu gabe. Berriro lehiara itzuli ahal izateko hilabete gehiago behar ditut. Beraz, espero dut azarorako itzultzea. Aurrendenboraldiari ekingo diot, baina nire kontura.

**"IAZ, IGOERAKO FASEAN, SEKULAKO BULTZADA SENTITU GENUEN HARMAILATIK"**



# “Egindako lan guztiagatik iritsi gara hona”

**BEÑAT ERRAZKIN, IOSU PAGOLA ETA UNAX JIMENEZ URNIETA ARTOLA HARATEGIA** Ezusteko atseginarekin emango dio amaiera denboraldiari, aurki, Artola Harategia taldeak, playoff-erako txartela eskuratu baitu, Euskal Ligara iristeko bidean



Beñat Errazkin, Iosu Pagola eta Unax Jimenez. AIURRI

## Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Denboraldiaren azken txanpan sartua da Urnietako Artola Harategia senior taldea, eta ez edozein modutan gainera: joan den asteburuan berdinketa lortuta, ziurtatuta dauka, jada, playoff-ean lehiatzeko txartela. Bukaera biribila eman nahi diote ligari eta motibazioz erantzungo diote erronkari jokalariek. Tartean dira Beñat Errazkin Bermejo, Iosu Pagola Artola eta Unax Jimenez Zumalakarregi urnietarrak.

**Joan den asteburuan berdinketa lortu ondoren, ospakizunerako tartea hartu al du taldeak?**

**Iosu Pagola:** Oraindik ez dugu ezer ospatu, harrিতa gaude joan den denboralditik aurtengora eman dugun aldaketa ikusita. Iaz, azken postuetan izan ginen, jaitsieratik gertu. Beraz, ilusioz bizi dut, polita baita playoff-a jokatzea.

**Beñat Errazkin:** Betiko ilusioarekin hasi genuen denboraldia denok, guztia emateko gogoz. Ez dakit zortea izan den-edo, baina ederki gabilta.

**Unax Jimenez:** Talde gaztea gara eta aurreko denboraldian, beharbada, esperientzia falta geneukan. Aurten, aurrerapauso hori eman dugu. Gainera, askok txikitatik jokatu dugu elkarrekin.

**I.P.:** Bai, egia da, beste taldeekin alderatuta, jokalaria gazteak daude gurean. Gazteenetarikoa nintzenez ni, 40 urteren bueltako taldekidea neukan, 33 urteko jokalaria pare bat... Orain, 27 ditut nik eta beteranoena naiz.

**Ez zen norgehiagoka erraza izan, txapelketako talderik indartsuenerikiko bat eduki baitzenuten aurrez aurre, Donibane Kalaburtza.**

**U.J.:** Oso ondo atera ginen kantzara hasieratik, lauzpabost goleko aldea aterata. Martxa mantentzea zen helburua; azkenean berdinketa lortu genuen, baina oso pozik gaude, playoff-a jokatzeo aukera izango dugulako.

**I.P.:** Oso pareko gabilta guztiok ligan denboraldi osoan. Bosgarren gaude, baina hirugarrenetik bi puntura. Beste denboraldi batzuetan izan da nabarmendu den talderik, baina, aurten, ez da horrelakorik eman hain argi.

**B.E.:** Donibane Kalaburtzaren kontrako joaneko partida da horren erakusle, esaterako. Galdu egin genuen lehen itzulian eta gehien sufritu dugun partida izan zen. Eta, itzuleran, berdinketa lortu dugu. Edozer gauza gerta daiteke.

**I.P.:** Donibane Kalaburtza da niretzat ligako talderik onena: jokalaria beteranoak ditu, goiko ligetan ibilitakoak dira... Talde konpletoa da, baina, begira, berdinketa lortu genuen.

**Harmailaren berotasunak lagundu al zion taldeari partidaren neurriari eusten?**

**O.J.:** Berezia da beti Urnietan jokatzea, bultzada ematen digute partida ikustera datozen gurasoek, lagunak eta zaleek.

**I.P.:** Entrenatzaile zarenen kasuan, ilusioa egiten du zuen jokalaria ikustera etortzea

**Zein giro nabari da orain aldagelan? Anbizioz begirutzen al diozue datorrenari?**

**I.P.:** Anbizio hori egon, badago. Ilusio handia egingo lidake igoe-ra fasera klasifikatzea berriro. Oso giro ona dugu, aurten. Partida txarretan tentsiorik sortu bada, gure artean hitz egin dugu, eta, nire ustez, oso giro positiboa izan dugu aldagelan.

**B.E.:** Oso ondo ulertzen dugu elkar taldean. Iritsi gara iritsi garen tokira, eta asko hitz egiten dugu, astez aste. Joan den asteburuko partidaren ondoren elkarrekin joan ginen afaltzera, adibidez. Horrelako momentutan nabari da gogoia, emozioa.

**I.P.:** Nabari da motibazioa, ez baita ligako edozein partida jokatzea bezala. Berezia izango da. Zerbait dugu jokoan eta denboraldian egindako lan guztiagatik iritsi gara hona. Gainera, jende asko dago taldean, nik uste, ez duena sekula playoff-ik jokatu. **Oraindik ez da denboraldia amaitu: asteburu honetan, Urola E.K. Lazti-mendiren pistan izango zarete. Estu-taldi handiagoa dute aurkariek, jaitsiera izan dezakete jokoan. Lasai al zoazte zuek? Gozatzeko helburuz?**

**I.P.:** Lesiorik ez edukitzea da helburua... (barreak) Oso argi dugu hori! Irabaztera joango gara, bai, baina garrantzitsuena bajarik ez izatea da.

## ESKUBALOIA

LURRALDEKO 1. MAILA, 21. jardunaldia:  
URNIETA-DONIBANE 36-36

## SAILKAPENA

1	HONDARRIBIA BIDASOA	38 p.
2	DONIBANE	31 p.
3	MEK EIBAR	27 p.
4	ORDIZIA	27 p.
5	URNIETA ARTOLA	25 p.
6	TXINGUDI GOIBAR	21 p.

**U.J.:** Gutxiago jokatu dutenei, baita bigarren taldeko jokalariei ere, minutuak emateko aukera izango da. Ondo datorkigu, gainera, astebete geldirik ez egoteko, erritmoa ez galtzeko.

**Denboraldiko azken txanpan sartuta, eta atzera begirako ariketan, nolakoa izan da Urnieta Artola Harategiaren ibilbidea?**

**U.J.:** Aurreko denboraldia nola bukatu genuen ikusita, aurtengo helburua ligan mantentzea zen. Partidaz partida joan gara jokatzen. Lesioak ere egon dira; adibidez, hilabete egon naiz geldirik eta orain bi baja ditugu. Ez gara asko, hamabi fitxa ditugu lehen taldean. Zenbait partidatan, bigarren taldeko jokalaria igo behar izan dira. Dena dela, lortu dugu eta ilusioarekin gaude, dena emateko prest.

**I.P.:** Arrasateko partida dukat gogoan: bederatzi jokalaria joan ginen eta, hamargarren minutuan, bat lesionatu zitzaigun. Bada, irabazi egin genuen eta izugarrizko motibazioa izan zen. **Aipatu duzuen bezala, zorrotza bezain estua da liga, eta denboraldi osoan erregularra izatea eskatu diezue. Zein izan da sekretua?**

**I.P.:** Inolako espektatibarik ez genuenez, Unaxek esan bezala, partidaz partida aritu gara eta lasai hasi genuen denboraldia. Zarautz, adibidez, irailean, lehen edo bigarren postuan zegoen eta, orain, jaitsieratik oso gertu dago. Geurea egin dugu, inorengandik ezer espero gabe.

**Aurrera begira, zein izango da igoe-ra fasean lehiakorak izateko gakoa?**

**U.J.:** Ziurrenik berriro ere Donibane izango dugu aurkari. Badakigu hor egongo garela, maila erakutsiz gero. Irabazteko aukerak ditugu.

**B.E.:** Esperientzia badugu beraien aurka; badakigu zer dagoen. Guk dugu zer hobetua, guk emango dugu sorpresa.

**I.P.:** Beraiek gelditu dira bigarren, guk ez dugu ezer galtzeko. Beren alde egon dadila presioa, gu sorpresa ematera goaz.



# Beñat Fernandez balentria, Algarven


Supersport 300 Munduko Txapelketako 36. irabazlea bihurtu zen Portugalen. Azken metroetan hartutako alde txikia nahikoa izan zen garaipen handia eskuratzeko. Helmugan egindako adierazpenetan pozarren zegoen andoaindarra



Beñat, garaikurra eskuan. WORLDSBK

## Erredakzioa ANDOAIN

Balentria ugari egin ditu andoaindarrak. Urteak aurrera joan ahala maila zailduz doa eta, halere, azkarrenen artean darrai Beñat Fernandez "Pelontxu" moto gidariak. Aurreko asteburuan egundoko garaipena lortu zuen WorldSSP300 txapelketan. Denboraldiko bigarren lasterketa da, andoaindarrarentzat estreineko denboraldia. Bada, azkar batean egokitu da bigarren lasterketan garaipena eskuratu zuelako. Nola, gainera! Estu-estu iritsi zen hautagai taldera azken bihurtunera, eta garaipena antzematen azkarrena Beñat izan zen. Azken metroetan har-



Helmugaratu orduko irudia, garaipena ziurtatzen zuen unea. WORLDSBK

tutako alde txikia nahikoa izan zen garaipen handia eskuratzeko. Modu horretan Kove taldeko gidaria Supersport 300 Munduko Txapelketako 36. irabazlea bihurtu zen. Ez du, ez, nolaini ahaztuko Algarveko autodromoan egin zuen lasterketa. Julio Garcia eta Antonio Torres hamarren bat baino gutxiagoko diferentziarekin iritsi ziren helmugara.

## "Pelontxu", pozarren

Antolatzaileen TV katerako adierazpenak egin zituen, lasterketa amaitu eta gutxira. Pozarren zegoen andoaindarra: "Lasterketa eroa izan da, uneoro borrokan aritu gara. Kontrolaezina zen, kaosa. Nire lehen garaipena da maila honetan, harrigarria da! Gogoan hartu nahi dut talde osoa, sinestezina da".

## Ez dute etsitzen Oriokok eta Rotetak

Gorengo mailan Oriokok 1-0 gaintu zuen Euskalduna. Hirugarren postuan da Andoaingo taldea

## Erredakzioa ANDOAIN

Liga osoan aurrealdean doazenek ez dute etsitzen. Denboraldi bikaina egiten ari da Euskalduna, baina zer esan Roteta eta Orioko taldeei buruz? Haiek ere bikain ari direla, puntuak hiruak

pilatzen. Izan ere, saria gutxien huts egiten duenarentzat izango da. Egin kontu: Rotetak 17 garaipen lortu ditu, Oriokok 16 eta Euskaldunak 15. Aldea eskasa da liga osoa aintzat hartuta. Bere bidea egin behar du Euskaldunak.

## FUTBOLA

GORENGO MAILA, 24. jardunaldia:  
EUSKALDUNA-AMARA BERRI 4-0

## SAILKAPENA

1	ROTETA	56 p.
3	ORIOKO	52 p.
3	EUSKALDUNA	49 p.
4	SANTO TOMAS LIZEOA	45 p.
5	OSTADAR	42 p.
6	TOURING B	40 p.
8	DANENA	35 p.

GORENGO MAILA, 26. jardunaldia:

EUSKALDUNA-DANENA  
Igandea, 6. 12:30. Ubitarte.



Ander Goikoetxea V eta Joseba Goikoetxea VI, aurtengo txapelkunak. ORIAMENDI

## Goikoetxea V eta VI, Berria Txapelketako txapelkun berriak

Pozarren jantzi zuen txapela Urnietako erremontistak. Eskudero andoaindarra, berriz, txapelkun ordea izan zen

## Erredakzioa URNIETA

2 Ander Goikoetxea-Joseba Goikoetxea  
0 Aritz Eskudero-Urtzi Gurrutxaga  
15-12, 15-10

Finala bizia izan zen eta set bakoitzaren amaiera aldera erabaki zen. Bietan ere, goikoetxeatarren alde. Finaleko onena Ander Goikoetxea urnietarra izan zen. Duen Eskarmentua baliatu zuen.

## Adierazpenak

**Ander Goikoetxea urnietarra:** "Behetik gora egin dugu txapelketa eta gaurkoan ere hortzak estutu eta garaipenean sinetsi dugu eta sinestu".

**Aritz Eskudero andoaindarra:** "Lehenengo set-eko 12-9koa eta gero joan zaigu partida. Behera etorri naiz eta ez dut lortu buelta ematea".

## Jardunaldi krudela Euskal Ligako taldeentzat

Gol bakarrek aldeaz galdu zuten neskek eta mutilek aurreko asteburuan

## Erredakzioa ANDOAIN

Elgoibarren 22-21 galdu zuen Leizaran Lanbroa tabernak eta, Tolosan, Leizaran Erniok ere antzera: 36-35.

## ESKUBALDIA

EUSKAL LIGA, mutilak, 24. jardunaldia:  
TOLOSA B-LEIZARAN ERNIO 36-35

## SAILKAPENA

1	SAIZAR USURBIL	40 p.
3	ZARAUZ	40 p.
3	URDANETA	34 p.
4	ELGOIBAR	33 p.
5	ESCOLAPIOS	15 p.
12	LEIZARAN ERNIO	11 p.
13	CORAZONISTAS	11 p.
14	TOLOSA B	10 p.

25. jardunaldia:

ELGOIBAR-LEIZARAN ERNIO  
Larunbata, 5. 19:30, Elgoibar.

## Ligako azken aurreko partida, azkena Allurralden

Leizaran Lanbroa taldeak sailkapenaren erdialdean amaituko du liga. Azken partidatan atzetik datorkion aurkariaren bisitaldia jasoko du.

## ESKUBALDIA

EUSKAL LIGA, neskek, 20. jardunaldia:  
ELGOIBAR-LEIZARAN LANBROA 22-21

## SAILKAPENA

1	URDANETA	36 p.
3	EREINTZA	34 p.
3	ELGOIBAR	28 p.
4	URDAIBAI	24 p.
5	LEIZARAN LANBROA	21 p.
6	IRAULI	16 p.

21. jardunaldia:

LEIZARAN LANBROA-IRAULI  
Larunbata, 5. 15:30, Allurralde.





Kadete mailako Euskalduna taldeak Ubitarte zelaian lortu zuen igoera matematikoa. Argazkian, taldeko jokalariak, haien etxeko eta lagunak eta Euskaldunako zuzendaritza taldeko hainbat kide. AIURRI



Igoera lortu duen jokalaria taldea, Iker Laskibar eta Mara Iasa entrenatzaileekin batera. AIURRI



Gol bakarra baliagarria izan zen irabazteko eta igoera ziurtatzeko. AIURRI

# Ziurtatu dute igoera, lehen aukeran

Euskaldunako kadete mailako nesken taldea Ohorezko Ligan ariko da 2025-2026. denboraldian. Sei jardunaldi zituzten igoera matematikoa eskuratzeko eta lehen aukeran lortu dute. Aurreko larunbatean 1-0 gainditu zuten Arrupe taldea

## Erredakzioa ANDOAIN

Real Sociedad, Añorga, Oiartzun, Eibar eta enparauekin lehiatzeko merituak egin dituzte denboraldi honetan. Datorren denboraldian, beraz, gorago dagoen mailan ariko dira andoaindarrak.

Garaipena ez zen lortzen erraza izan. Igoera lortzeko aukerak nabarmen baldintzatu zituen urdinak eta hiru puntuak lortzea asko kostatu zen. Gol bakarra sartu zuten eta hori nahikoa izan zen hiru puntuak lortzeko eta igoera ziurtatzeko.

Partida amaituta pozarren zegoen Euskaldunako familia osoa. Hots, jokalariak, prestatzaileak eta taldekoen etxeokoa nahiz lagunak. Jende asko hurbildu zen Ubitartera eta denek

atera sufritu eta ospatu zuten garaipena.

Ez da Ohorezko Mailan ariko diren lehen aldia. Aurrekoan talde batek uko egin ostean lortu zuten txartela. Bi denboraldiren ostean, euren merituz, igoera lortu dute.

## Igoera lortu duen taldea

Jokalariak: Haizea Telletxea, Mara Arnaiz, Maria Plaza, June Alonso, Neide Astigarraga, Naroa Corral, Maren Mosquero, Libe Astigarraga, Nora Garcia, Alaia Luis Godoy, Irati Landa, Marta Molano, Karen Sofia Sanchez, Malak Maris, Oihane Aparicio, Leire Fuentes eta Alaia Zalacain. Entrenatzaileak: Iker Laskibar eta Mara Iasa.



## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## EUSKARALDIA

**ANDOAIN Aurkezpena**  
Hamaikakoaren aurkezpena.  
*Apirilak 4, ostirala.*  
18:00, Plaza Morea.

## KONTZERTUA

**ANDOAIN Olaia Intziarte**  
"Zerrautsa" disko berriena aurkeztuko du kantari nafarrak Andoainen, udaberriko programazioari hasiera emanez.  
*Apirilak 4, ostirala.*  
19:30, Bastero Kulturgunea.

## TXAPELKETA

**ANDOAIN Mus txapelketa**  
Mus-txapelketa antolatuta du Irunberri. Izen-ematea bertan egin daiteke. Bikoteko, 15 euro.  
*Apirilak 5, larunbata.*  
16:30, Irunberri.

## ANTZERKIA

**ANDOAIN "Itzulera"**  
Dejabu konpainiaren berriena Andoainera iristear da.  
*Apirilak 11, ostirala.*  
19:30, Bastero Kulturgunea.

**URNIETA "Andereño"**  
Hitzik gabeko antzerkia, panpinen eskutik.  
*Apirilak 13, igandea.*  
17:30, Bastero Kulturgunea.



Udal Musika Eskolako Banda, artxiboko irudian. AIURRI

## ANDOAIN Queen Gaua, Udala Musika Eskolako Bandaren eskutik

Freddy Mercury eta Queen musika taldeak aski ezagunak dira ikusleko zabalarentzat. Udala Musika Eskolako Bandak emanaldi berezia prestatu du, hainbat gonbidaturekin: Ana Belen Garcia piano-jotzailea, Jon Gurrutxaga abeslaria eta Patxi Zabaleta gitarrak-jolea.  
*Apirilak 5, larunbata. 19:30, Bastero Kulturgunea.*

## LEHIAKETA

**ANDOAIN Aurkezpena**  
Andoain Laburrean euskarazko bideo laburrak egitea xede duen lehiaketa martxan da. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 19a izango da, eta sari-banaketa ekitaldia ekainean.  
**Oinarriak:**  
[Andoaindarraeuskaraz.eus](http://Andoaindarraeuskaraz.eus).

## ELKARTASUNA

**ANDOAIN Andoain Palestina**  
Andoain Palestina ekimenak antolatuta, elkartasun ekimena antolatu dute.  
Egitaraia:  
10:00-14:00 Postuak eta tailerrak.  
12:30 Mosaikoa, elkarretaratzea.  
*Apirilak 5, larunbata.*  
10:00-14:00, Juanita Alkain plaza.

## Euskararen corpus erakusgarria, orekatua eta kalitatezkoa


Euskaltzaindiak Euskararen Erreferentzia Corpusa aurkeztu du eta partaideen artean dira AIURRI nahiz TOKIKOM

**Erredakzioa** ANDOAIN  
Hizkuntza-corpusa datu-bilduma handi bat da, egituratua, erabileraren errealitatean oinarritua eta linguistikoki prozesatua, hizkuntzaren atal baten erakusgarri legez erabiltzen dena. Aste

honetan Euskaltzaindiak Euskararen Erreferentzia Corpusa (EEC) aurkeztu du, lau urteko egitasmoa biribilduz. Aurkeztu duten bertsioak 123.124 dokumentu, 154,21 milioi testu-hitz eta 129.817 lema biltzen ditu,

2000. urtetik hasi eta 2023ra bitartean euskaraz idatzitako edo ekoiztutako testuetatik hartuak. Euskaltzaindiak Euskal Herriko 68 erakunde pribatu eta publikoekin batera egin du, hedabide nagusiekin –tartean AIURRI eta TOKIKOMeko hedabideak– eta gizarte-eragile askorekin batera. Andres Urrutia euskaltzainburua eskerrak eman dizkie partaide guztiei, aurrerantzean Akademiaren giltzarri eta oinarri izango den corpusarekin bat egiteagatik.

## ZINEMA



## ANDOAIN

## BASTERO

**Anora**  
Apirilak 6, igandea. 19:30.  
Apirilak 7, astl. 17:00, 19:30.

## Diplodocus

Apirilak 6, igandea. 17:00.

**Por todo lo alto**  
Apirilak 12, larunbata. 19:30.  
Apirilak 13, igandea. 19:30.  
Apirilak 14, astl. 17:00, 19:30.



## SINOPSIS

## Por todo lo alto

**Zuzendaria:** Emmanuel Courcol. **Aktoreak:** Benjamin Lavernhe, Pierre Lottin, Sarah Suco, Nathalie Desrumaux, Stephanie Cluquenois, Ludmila Mikael... **Herrialdea:** Frantzia. **Urtea:** 2024. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 103 m.

## Bi anaia

Thibaut nazioartean izen handia duen orkestra zuzendaria da, munduan barrena bidaiatzen duena. Adoptatua dela jakiten duenean, anaia bat aurkituko du, Jimmy izenekoa. Frantziako iparraldeko musika-banda batean tronboia jotzen duen eskola-jantoki bateko langilea da. Hasiera batean ez dute elkarren arteko lotura handirik, musikarekiko maitasuna izan ezik. Anaiaren musika-trebetasun aparten berri jakitean, Thibautek patuaren bidegabekeria konpondu nahi du. Jimmy orduan hasiko da amets egiten beste bizitza batekin...



Corpusaren aurkezpen-ekitaldia, Bilbon. EUSKALTZAINDIA



# Enplegagarritasuna hobetzeko ekimena

Beterri-Buruntza Mankomunitateak, HAZILAN+ laguntza programa jarri du abian. Eskualdeko langabezia egoeran dauden pertsonen lan-merkatuan modu lehiakorragoan sartzeko, enplegagarritasuna hobetzen laguntzea du helburu

**BETERRI-BURUNTZA**  
MANKOMUNITATEA  
BETERRI BURUNTZA

Bi alorretan sakondu nahi da aurtun. Batetik, LORPEN, lan-merkatuan zuzenean sartzeko banakako ibilbidea. Lanpostua berehala lortzeko gaitasun nahikoa erakusteko gai diren pertsonen zuzenduta dago. Bestetik, OSATU, talde-saioak dira lan-merkatuan eskatzen diren trebetasunak lortzeko eta ibilbidea enpresako praktikekin osatzen da. Taldeko ekimenean parte hartzeko deialdia ireki du mankomunitateak eta interesa duenak apirilaren 22ra arte eman dezake izena.



Beterri-Buruntzako ekimena, artxiboko irudia. BETERRI BURUNTZA

## Langabezian Dauden Pertsona Kualifikatuei Zuzendua

HAZILAN+ laneratzeko proiektu bat da, langabezian dauden pertsona kualifikatuei zuzendua adina kontuan hartu gabe. Prestakuntza izan arren, kolektibo horrek zailtasun bereziak izan ditzake lan-merkatuan sartzeko, bai esperientzia ezagatik, batez ere berriki amaitutako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, edota bai gaur egun enpresek eskatzen dituzten zeharkako gaitasun eta trebetasunik ezagatik. Beraz, langabezian dauden, edota titulua lortu berri duten pertsonen (erdi-mailako eta goi-mailako LH, unibertsitate-gradua edo unibertsitate-ondokoa dutenei), aurretiko lan-esperientziarik edo lanbide-profilari lotutako esperientziarik ez dutenei zuzendua dago. Programak arreta berezia jartzen du, halaber, geldialdi baten ondoren lan-merkatura itzuli nahi duten emakumeengan, kasu gehienetan zainketa lanetan egon direlako.

Interesa duen orok, informazio gehiago eska dezake enplegua@beterriburuntza.eus helbidera idatzita.

## ZORION AGURRAK



ANDOAIN  
**Irati Ezeiza Usabiaga**  
Zorionak Irati!!!  
Neskari politenak apirilaren 26ean 28 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu asko amona Mirenen partetik.



ANDOAIN  
**Eneko Fernandez**  
Zorionak Eneko!  
Martxoaren 27an 13 urte egin dituzu, muxu handi bat etzekoen partez!



ANDOAIN  
**Manoli Iturralde**  
Martxoaren 25ean Manolik urteak bete zituen. Zorionik beroenak bere alaba eta biloben partez! Ama eta amona zoragarria zara! Maite zaitugu.



ANDOAIN  
**Zorionak Inge!**  
Gure kirolariak 10 urte beteko ditu apirilaren 10ean. Orain arte bezain jator jarraitu. Muxu handi bat, aiton-amonak.

**IKUSBERA**

Laster, haur aldizkariaren zenbaki berria!

Harpidedun izatearen abantailak

AIURRI



2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

# EUSKARALDIA

*Elkar mugituz  
egingo dugun*



**AHOBIZI,**  
**BELARRIPREST,**  
zein izango da zure  
rola maiatzaren  
15etik 25era?

**Bat egin  
EUSKARALDIAREKIN!**

